Zortzi urtean egikaritzeko gehienezko kopurua	650
Lurzoruaren okupazioa	0

-
Jasan
garrita
sunari
dagoz
kion
irizpid
eein
lotutak
o
lehen
spena:
Taldear

en ustez, jasangarritasunaren ingurumenaren alorra betetzeak gainerakoak betetzea galdatzen du. Ezinezkoa da ingurumenaren alorra betetzea, gainerakoak ondo egin ezean.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokionez, ez da lehenesten, aipatzen dute hobe dela dagoena zaintzeari lehentasuna ematea.

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Talde honen proposamena 0 etxebizitza berri eskaintzea da, espazio librean sistema orokor gisa proposatutako zonak proposatuz.

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak:

Eraikuntzaren ereduak egungo jasangarritasunik eza ekarri du maila guztietan: finantza-, gizarte- eta ekologia-mailan.

Helburua dauden baliabideak aprobetxatzea, ondare historikoa eta artistikoa eta ingurune naturala berreskuratzea eta zaintzea eta nekazal sektorea indartzea izan behar da.

Uste da ez dela gehiago eraiki behar, etxebizitza berria beste modu batera bultzatu behar dela: ondarea kontserbatuz (etxetxoak, baserri historikoak...), dauden etxebizitzak birgaituz, berreskuratuz eta horiei irtenbidea emanez: etxebizitza hutsak, atikoak, etxebizitzak zatikatzea, birgaitzea... Aukera honi etxebizitza berriak eraikitzeari baino lehentasun handiagoa eman behar zaio.

Sistema orokorren barruan, egungo benetako aisiarako eremuak zenbatu behar dira: Galea, Andra Mari, Udalaren jabetzakoa den golf ingurua, etab. Oraindik egikaritu ez diren egungo HAPOn egikaritze-unitateak espazio librean sistema orokor bihurtu behar dira, horrela zenbatu ahal izateko eta, era horretan, hiri-lurzoruan daukagun defizita gainditzeko.

Dagoeneko kudeatuta dauden arren eraiki ez diren egikaritze-unitateetako orubeen diseinua ere aldatu egin behar da, espazio librean sistema orokor bihurtzeko; baita eraiki gabe dauden hiri-lurzoruko orube guztiak ere.

Getxok daukan kapital naturala hobetu behar da. Azterna ekologikoa mantentzea eta, ahal izanez gero, murriztea eta, era horretan, udalerrian daukagun altxor naturala mantentzea.

Egungo krisialdiaren aurretik zegoen biztanleriaren eta haren beharren arteko orekara itzultzea.

Bestalde, Getxok potentzial turistikoa, kultural... handia dauka. Hori kudeatzen eta sustatzen jakin behar da, herritarren ongizateari begira. Adibidez, Andra Marik potentzial ekonomikoa eta lan arlokoa dauka: gazteentzako eta, oro har, biztanleriarentzako nekazaritza mantentzea eta, era horretan, herria elikatzea (nekazaritzako azokak, etab.). Horrela, tokiko mailan pinudiak eta bestelako guneak mantentzea daitezke.

Proposamen horiek maila guztietan hobetuko lukete gizakiaren ongizatea, ekosistemen zerbitzuak hobetuko bailirateke.

A2. Biztanleriaren urteko galera (- 3.632 bizt.) eta 2.000 etxebizitza eskaintzea

- Oinarrizko datuak:

Biztanleriaren urteko galera	% 0,47koa / del 0'47 %		
Biztanleria-saldoa, 8 urteren ondoren	-3.088		
Etxebizitza eskaintza	2.617		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	603	242 boe	361 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	412	309 boe	103 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko Jarduera Ekonomikoetako sektoreetan (5,5 Ha)	119	89 boe	30 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko jarduketa isolatuetan	200 eL		
Kudetu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehienezko kopurua (eskaintzaren % 50)	1.308		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagokion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1: ingurumena, 2: soziala, 3: kulturala eta 4: ekonomikoa.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) / Non kokatu?: Lurzoru urbanizagarriko sektorean
2. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu) / Non kokatu?: Hiri-lurzoruan, etorkizuneko egikaritze-unitateetan
3. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu)

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.
Kopurua: Dentsitate ertaina: beheko sol. + 6, eraikigarritasuna: 1,25 m²s/ m²t - 57 etxebizitza

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean. Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: Dentsitate ertain-altua: beheko sol. + 6, eraikigarritasuna: 1,25 m²s/ m²t - 546 etxebizitza

Gainerako zonak espazio libreen sistema orokorrak izango lirateke.

Lurzoru urbanizagarri berrian:

Dentsitate ertaina: Beheko sol.+4+A, eraikigarritasuna: 0,95 m²s/ m²t

- 412 etxebizitza bizitegi sektoreko 7 hektareatan, Ibarbengoako geltokiaren zonan
- 119 etxebizitza Jarduera Ekonomikoetako sektoreko 5,5 hektareatan

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak

Zona: Lurzoru urbanizagarri berrian

Kopurua: 5,5 hektarea

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak

Proposamena A2 proposamenari alternatiba formulatzean datza, A2bis deritzona:

Hiri-lurzorua erabat betetzea:

Horrek zera esan nahiko luke, etxebizitza kopuruari dagokionez:

- jarduketa integratuetan (2001eko HAPOn Egikaritze-unitate deitzen dira)
= 2.100 etxebizitza.
- jarduketa isolatuetan = 200 etxebizitza.
- etxebizitza hutsetan (etxebizitza hutsen % 30) = 650 etxebizitza huts

Guztira, gutxienez = 2.950 etxebizitza, ia B aukeraren eskaintza (3.640 etxebizitza) eta biztanleria mantentzea ahalbidetzen dute, baita Familien Batez besteko Tamaina txikituko balitz ere (FBT: etxebizitza berean bizi den pertsona kopurua; Getxon, 2,792 pertsona gaur egun, eta 2,542 pertsona 2023an).

FBT-ren Hipotesia (egungo 2,792 zifratik, 2023an 2,542ra jaistea) eztabaidagarria da, jaitsiera ez baita azkeneko 15 urteotakoa bezain azkarra izango.

Alternatiba hori legitimoa da 2001eko HAPOn lurzoru urbanizagarri zaharra babesteko (Andra Mariko zona), etorkizuneko HAPOrako lurzoru urbanizaezina birkalifikatuz.

Jarduera ekonomikoak bizitegi-erabilerekin bateragarriak izango dira (I+G+b, merkataritza, ostalaritza, hirugarren sektorea...). erabileren irtenbide trinkoago baten bitartez.

Garrantzitsua deritzogu jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua merkataritza-guneak sortzeko ez erabiltzeari.

Hiri-lurzoruan erdi-mailako dentsitatearen alde egiten da (0,95m²t / m²s = 50/70 etxebizitza hektareako).

Dauden etxebizitza guztiak (lokalak eta atikoak etxebizitza bihurtzea, etab.) aprobetxatzeko aurkeztutako planteamendu horrekin, biztanleria mantendu ahal izango litzateke, eremu urbanizagarriak eraiki gabe, gainera, eta landa-eremuak ere bere horretan mantenduko lirateke.

A3 Biztanleriaren urteko galera (- 2.218 bizt.) eta eskaintzeko 3.640 etxebizitza

-Oinarrizko datuak

Biztanleriaren urteko galera	% 0,38koa / del 0,38 %		
Biztanleria-saldoa 2023an	-2.411		
Etxebizitza eskaintza	3.413		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	1.330	617 boe	713 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	648	486 boe	162 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko Jarduera Ekonomikoetako sektoreetan (7 Ha)	152	114 boe	38 eL
Kudetu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehieneko kopurua (eskaintzaren % 50)	1.706		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua birbanatzea + 18,5 Ha		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagokion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1: soziala, 2: ingurumena, 3: kulturala eta 3: ekonomikoa (azken biak puntuazio berarekin).

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu)
2. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu)
3. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu)

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: 2001eko HAPOn diseinuari eustea

Zona: 16.3 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.981 m² eta 65 etxebizitza libre.

Kopurua: 2001eko HAPOn diseinuari eustea

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: % 60 Hiri-baratzeen sistema orokorrerako (baratzak erregularizatuta) eta % 40 etxebizitzetarako. 400 bat etxebizitza, 0,95 m²/m²s eraikigarritasunarekin eta Beheko sol.+4+A (5,5 SOLAIRU) tipologiarekin

Zona: 36.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 11.000 m² eta 228 etxebizitza libre, babes ofizialeko 100 etxebizitza eta 180 etxebizitza tasatu

Kopurua: 2001eko HAPOn diseinuari eustea, dentsitateak errespetatuz.

Zona: 42.1 Egikaritze-unitatean: 146 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 60 etxebizitza

Kopurua: Dentsitatea handitzea. 300 bat etxebizitza, 0,80 m²/m²s eraikigarritasunarekin eta

Beheko sol. 1/2+3+A (4 SOLAIRU) tipologiarekin

Gainerako zonak espazio libreen sistema orokorrak izango lirateke.

Lurzoru urbanizagarri berrian:

800 etxebizitza 18,5 hektareatan

Dentsitate ertaina: Beheko sol.+4+A, eraikigarritasuna: 0,95 m²s/ m²t

- 152 etxebizitza Jarduera Ekonomikoetako sektoreko 7 hektareatan
- 648 etxebizitza bizitegi sektorean, 11,5 hektareatan

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak

Zona: Lurzoru urbanizagarri berrian

Kopurua: 5,5 hektarea

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, ondorioztatzen da hiri-lurzorurako 2001eko HAPOn aurreikusitako 2.000 etxebizitzak ez direla kabitzen. Hiri-lurzoruan etxebizitza erdiak soilik kabitzen dira, Espazio Libreen Sistema Orokorren defizita dagoelako eta horiek hiri-lurzoruaren barruan sartu behar direlako eta ez Andra Marira eraman.

HAPOk Espazio Libreen Sistema Orokorren zorra konpentsatzera bideratu beharko lituzke zenbait egikaritze-unitate.

Beste bide batzuk aztertu beharko lirateke, Espazio Libreen Sistema Orokorrek gehitzeko (peatonalizazioa).

HAPOn bitartez, jarduketak egin daitezkeen lurzoru erabat eta modu iraunkorrean mugatuko lukeen hiri-perimetro bat definitu beharko litzateke.

Aipatzen da gaindi ezin daitezkeen hiri-perimetro iraunkorra defini litekeela, era horretan, dagoen eremu urbanizagarria eta landa-eremua errespetatuz. Eremu iraunkor bat baldin badago, biztanleriaren gehieneko kopuru finko bat definitzen da.

Gaur egungo hutsuneren batzuk balia litezke, baina badaude aprobeitatu ezin daitezkeen tokiak.

Aurreko taldeekin ados daude: Andra Mari eta Aizkorri ez okupatzea.

Azkenik, komentatzen da, beharbada, ez dela aukerarik egokiena Andra Mari dagoenetan uztea, ikerketarako landa-eredu bat susta litekeela, enpresaren alorrerako beste behar batzuk betetz. Landa-eremuak ere badauka ikerketako eta esperimentazioko eredia, ingurumenaren eta ekonomiaren esparruak integratzen direna.

A5. Biztanleriaren urteko galera (- 783 bizt.) eta eskaintzeko 5.362 etxebizitza

- Oinarrizko datuak:

Biztanleriaren urteko galera	% 0,122koa / del 0'122 %		
Biztanleria-saldoa 2023an	-783		
Etxebizitza eskaintza	5.362		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL

Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	1.441	567 boe	874 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	2.457	1.843 boe	614 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko Jarduera Ekonomikoetako sektoreetan (8 Ha)	181	136 boe	45 eL
Kudetu beharreko etxebizitza hutsak	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehienezko kopurua (eskaintzaren % 40)	2.144		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua + 57,5 Ha		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagokion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1: soziala, 2: ekonomikoa, 3: kulturala eta 4: ingurumena.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) / Non kokatu?: Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian
2. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu) / Non kokatu?: Lurzoru urbanizagarrian
3. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu) / Non kokatu?: Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu).

Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 16.3 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.981 m² eta 65 etxebizitza libre.

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu).

Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) + jarduera ekonomikoak. Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 27.1.2 Egikaritze-unitatean: Eliza eta 51 etxebizitza libre zeuzkan

Kopurua: dentsitate altua: beheko sol. + 6 (7 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 27.5 Egikaritze-unitatean: Ekipamendu txiki bat, 22 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 6 etxebizitza zeuzkan

Kopurua: dentsitate altua: beheko sol. + 6 (7 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 31.3 Egikaritze-unitatean: 5.125 m² aparkaleku ekipamendurako eta 6 etxebizitza libre

Kopurua: dentsitate altua: beheko sol. + 6 (7 solairu) Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 36.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 11.000 m², 228 etxebizitza libre, babes ofizialeko 100 etxebizitza eta 180 etxebizitza tasatu

Kopurua: dentsitate altua: beheko sol. + 6 (7 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Zona: 42.1 Egikaritze-unitatean: 146 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 60 etxebizitza

Kopurua: dentsitate altua: beheko sol. + 6 (7 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, etorkizuneko HAPOn birdiseinatzeko.

Lurzoru Urbanizagarri berrian

Andra Mariko herri-guneen ondoan

Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu)

Andra Mariko dentsitate baxuko zonen artean

Dentsitate ertaina: beheko sol. + 4 + atikoa (5,5 solairu)

Oso tarteka

Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu)

Guztira, 2.457 etxebizitza lurzoru Urbanizagarrian.

Kalkulu orokorretarako, Dentsitate Ertainaren eta Dentsitate Ertain-Baxuaren arteko batez bestekoa egiten da:

Dentsitate ertaina-baxua: Beheko sol. + 2 (3 solairu) eta 0,75 m²t/ m²s eraikigarritasuna

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: Lurzoru Urbanizagarri berrian eta Egikaritze-unitateetan, sakabanatuta.

Kopurua: 8 hektarea

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak:

A5 aukeraren alde egin da, egikaritu beharreko 2.527 etxebizitzarekin.

Proposamen indartsuenetako bat Zientzietako errepidearen inguruan (bide nagusia) kokatzen da, betiere, geltokiarekin lotuta badago eta ingurunea errespetatuz.

Bestalde, behar bezala erregularizatu behar da Andra Mari, herri-gune berriekin. Herri-guneetatik kanpo geratzen diren etxebizitzak (etxeak eta baserriak) segurtasun juridikoarekin, integratuta eta kohesionatuta geratu behar dira.

Gainera, Andra Mariko zonetan landa-sektoreak ondo kudeatzen jakin behar da, dauden etxebizitzekin bateragarri eginez.

Hirigintzako proiektu harmoniatsua egin daiteke, berdeguneekin, landa-sektorearekin (prestakuntzako ikastaro egokiekin...).

Azkenik, dentsitate tipologiei eta dauden etxebizitzei buruzko eztabaida egitea aipatu da.

B. Biztanleria mantentzea (0 bizt.) eta eskaintzeko 6.302 etxebizitza

- Oinarrizko datuak

Biztanleria mantentzea			
Biztanleria-saldoa 2023an	0		
Etxebizitza eskaintza	6.302		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	1.441	567 boe	874 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	3.352	2.514 boe	838 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko jarduera ekonomikoko sektoreetan (10 Ha)	226	170 boe	57 eL
Kudetu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehieneko kopurua (Eskaintzaren % 40)	2.520		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua + Lurzoru Urbanizagarria, 66 Ha		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:

Jasangarritasunari dagokion irizpideen lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak: 1: soziala, 2: ekonomikoa, 3: ingurumena eta 4: kulturala.

Lehentasunak gorabehera, taldearen iritziz, oso garrantzitsuak eta banaezinak dira jasangarritasunaren lau alderdiak.

- Dentsitateen lehenespena:

Dentsitateei dagokien lehentasun-ordena honakoa izan behar dela adostu du taldeak:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) / Non kokatu?: 27.5, 27 1.2 eta 31.3 egikaritze-unitateetan

2. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu) / Non kokatu?: 16.3 Egikaritze-unitateetan

3. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu) / Non kokatu?: Zubilletas deritzon 36.1 Egikaritze-unitateetan: 500 bat etxebizitza. Eta Iturribarri deritzon 24.2 Egikaritze-unitateetan

- Etxebizitza kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitateetan: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: Babes Ofizialeko Etxebizitza kopurua handitzea

Zona: 16.3 Egikaritze-unitateetan: Espazio libreen 6.981 m² eta 65 etxebizitza libre.

Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Zona: 24.2 Egikaritze-unitateetan: Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Zona: 27.1.2 Egikaritze-unitateetan: Eliza eta 51 etxebizitza libre zeuzkan

Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Zona: 27.5 Egikaritze-unitateetan: Ekipamendu txiki bat, 22 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 6 etxebizitza zeuzkan

Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Zona: 31.3 Egikaritze-unitatean: 5.125 m² aparkaleku-ekipamendurako eta 6 etxebizitza libre
Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Zona: 36.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 11.000 m², 228 etxebizitza libre, babes ofizialeko 100 etxebizitza eta 180 etxebizitza tasatu
Kopurua: Birdimentsionatzea eta berrikustea

Zona: 42.1 Egikaritze-unitatean: 146 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 60 etxebizitza
Kopurua: 2001eko HAPOn bezala mantentzea

Lurzoru Urbanizagarri berrian
Bizitegi sektoreko 60 hektarea 3.352 etxebizitza
Dentsitate ertaina: beheko sol. + 4 + atikoa (5,5 solairu)

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Zona: Lurzoru Urbanizagarri berrian
Kopurua: 10 hektarea

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak:

Mantentzea aukeratu da, Getxoko etxebizitzaren egoera ikusita, batez ere, gazteentzako etxebizitza arazoa ikusita. Ez da galera aukeratu, arazoa larriagotu dezakeelako.

Gainera, Getxoko biztanleriari eusteko beharrezko gutxieneko etxebizitza kopurua sortu behar da, lurzoruaren gaineko ahalik eta eragin txikienarekin.

Lehentasunez jotzen da Getxoren erabilera produktiboa eta ekonomiari eta enpresa munduari dagokion erabilera bultzatzea.

Getxoko ondare historikoaren erabilera sustatu beharko litzateke, jarduera ekonomikoaren sortzaile gisa: Portu Zaharra, Andra Mari eliza.

Aukera honetan 3.000 etxebizitza eraikitzea planteatzen da: 2001eko HAPOn jasotako egikaritzeke dauden Egikaritze-unitateetan 2.400 etxebizitza daude. Babes ofizialeko 1.500 bat etxebizitza eta, etxebizitza hutsetatik (3.000), 600-700 bat merkatura litezke.

3.000 etxebizitza horiek 57 bat etxebizitza dira hektareako. Egikaritzeke dauden Egikaritze-unitateen garapenarekin ezarritako etxebizitza kopurua eskaintzen da.

Hori aldatu egin daiteke, Familien Batez besteko Tamainaren arabera, 2,7-tik 2,5-era jaitsi baitaiteke, era horretan, beharrak aldatuko liratekeelarik.

C2. Biztanleriaren urteko hazkundera (2.525 bizt.) eta eskaintzeko 9.376 etxebizitza

- Oinarrizko datuak

Biztanleriaren urteko hazkundera	% 0,38koa / del 0'38 %
Biztanleria-saldoa, 8 urteren ondoren	2.152

Etxebizitza eskaintza	9.376		
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko kudeatutako egikaritze-unitateetan	633	126 boe	507 eL
Etxebizitza berriak, hiri-lurzoruko berrikusi beharreko egikaritze-unitateetan	1.441	567 boe	874 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarrian	6.380	4.785 boe	1.595 eL
Etxebizitza berriak lurzoru urbanizagarriko jarduera ekonomikoko sektoreetan (12 Ha)	272	204 boe	68 eL
Kudetu beharreko etxebizitza hutsak, alokairuan emateko	650		
Zortzi urtean egikaritzeko gehieneko kopurua (Eskaintzaren herena)	3.125		
Lurzoruaren okupazioa	Hiri-lurzorua + Lurzoru Urbanizagarria, 118,5 Ha		

- Jasangarritasunari dagozkion irizpideekin lotutako lehenespena:
Jasangarritasunaren “hanka” guztiak neurri berean dira garrantzitsuak.

- Dentsitateen lehenespena:

1. Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu) / Non kokatu?: Dentsitate ertaina morfologikoki lurraldean integratutako egikaritze-unitateetan kokatu beharko litzateke, hots, bere inguruan dauden tipologiekin parekatuz, horiek zuzenak eta orekatuak baldin badira, edo modu berritzaile jasangarrian: bizitegi-espazioak espazio libreekin eta babestutako kostaldeko parkearekin konbinatuz.

2. Dentsitate altua: beheko solairua + 6 (7 solairu) / Non kokatu?: Dentsitate altua kasu zehatzetan bakarrik erabili beharko litzateke, aurrekoekin konbinatuz; dentsitate altuak lurzoru liberatzeko aukera ematen du eta, ondo eginez gero, lurraldean integra daiteke (*Le corbusier* modu zehatzean eta jasangarrian berrinterpretatuz?)

3. Dentsitate ertaina-baxua: beheko solairua + 2 (3 solairu) / Non kokatu?: Dentsitate baxua lekukotasun gisa erabili beharko litzateke; gaur egungo HAPOn dauden dentsitate baxuko eremu batzuk mantenduz eta, beharbada, udalerraren kostalderanzko zein udalerr mugakideetaranzko ertz batzuk azkenduz.

- Etxebizitza kopurua eta horien kokatzeko zonak:

Zona: 16.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.700 m² eta babes ofizialeko 57 etxebizitza.

Kopurua: Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 16.3 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 6.981 m² eta 65 etxebizitza libre.

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 24.2 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 18.000 m² eta 356 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 164 etxebizitza.

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 27.1.2 Egikaritze-unitatean: Eliza eta 51 etxebizitza libre zeuzkan

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 27.5 Egikaritze-unitatean: Ekipamendu txiki bat, 22 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 6 etxebizitza zeuzkan

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 31.3 Egikaritze-unitatean: 5.125 m² aparkaleku ekipamendurako eta 6 etxebizitza libre

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 36.1 Egikaritze-unitatean: Espazio libreen 11.000 m², 228 etxebizitza libre, babes ofizialeko 100 etxebizitza eta 180 etxebizitza tasatu

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Zona: 42.1 Egikaritze-unitatean: 146 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 60 etxebizitza

Kopurua: dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu). Egikaritze-unitatea berrikustea, birdiseinatzeko eta bere inguruneko tipologietara egokitu dadin, legezko estandar berriak betez.

Lurzoru Urbanizagarri berrian

Bizitegi sektoreko 106,5 hektarea: 6.380 ETXEBIZITZA

Dentsitate ertaina: beheko solairua + 4 + atikoa (5,5 solairu)

- Jardueradun hektarea kopurua eta horiek kokatzeko zonak:

Jarduera ekonomikoak (12 Ha) lurzoru urbanizagarriak zein hiri-lurzoruan kokatu beharko liriteke, garatzeke dauden egikaritze-unitateetan.

- Aurkeztutako proposamenaren argudio nagusiak:


Hirigintzako irtenbideak konbinatzea, erabilera publikoko espazio libreetarako lurzoru-masa garrantzitsuak eskuratzeko, bideak itxituren arteko pasabide babesgabe gisa uzten dituen itxituradun zatikatutako eta isolatutako jabetza pribatuaren egitura-ereduarekin hautsiz... Beharbada, garaia da eredu kontserbazionista edo nekazal eredu nahikoari aurre egiteko; eredu horrek lortu nahi duen bakarra jabetzaren egiturari eustea da, hirigintzak dakarren eraldaketarengandik defendatuz. Eredu jasagarri baten zerbitzura dagoen hirigintza eraldatzaile bat aldarrikatzea komeni da.

Etorkizuneko HAPOn hiri-garapenerako beharrezko lurzoruaren okupazioari lotutako lurrazala, eredu organiko bat (hots, herri-gune edo nukleo anitzeko hiria, komunitateen gainjartze hierarkizatuaren bitartez osatutako hiri-egitura: auzo-unitatea, auzoa, barrutia eta hiria; bakoitza bere biztanle kopuruarekin eta biztanle kopuruaren beharrei egokitutako zerbitzu-hornikuntzarekin) ahalbideratuko duten antolamendu xehatuaren dentsitateen

arabera zehaztuko da; eredu hori lurraldean ondo integratuko da, baina, era berean, berdeguneetarako eta ekipamendu garrantzitsuetarako lurzoru-masa garrantzitsuen lagapena ahalbideratuko du.

Lantaldearen aukeren lehenespeneren emaitza

Azalpenen arabera, Lantaldeko kideek (33 partaide) 6 aukerak baloratu eta lehentasunak ezarri zituzten⁵. Jarraian, grafikoki aurkezten da balorazioen emaitza, lehentasun-mailaren arabera ordenatuta.



A2. Biztanleriaren urteko galera (- 3.632 bizt.) eta 2.000 etxebizitza eskaintzea

A1. Biztanleriaren urteko galera (- 5.327 bizt.) eta 0 etxebizitza eskaintzea

B. Biztanleria mantentzea (bizt. =) eta 6.302 etxebizitza eskaintzea

A3. Biztanleriaren urteko galera (- 2.218 bizt.) eta 3.640 etxebizitza eskaintzea

A5. Biztanleriaren urteko galera (- 783 bizt.) eta 5.362 etxebizitza eskaintzea

C2. Biztanleriaren urteko hazkundera (2.524 bizt.) eta 9.376 etxebizitza eskaintzea

⁵ Aurkeztu ez ziren eta, beraz, baloratu ez ziren bi aukera egon ziren: A4. Biztanleriaren urteko galera (-1.249 bizt.) eta eskaintzeko 4.803 etxebizitza; eta C1. Biztanleriaren urteko hazkundera (776 bizt.) eta eskaintzeko 7.232 etxebizitza